

FELIPE ARRESE TA BEITIA OLERKIAK

1999. urtea (uztaila)
Lege-Gordailua: SS-766/99

Oharra:

Olerki-bilduma hau 1897. urteko edizioan oinarrituta dago (“Euskalzale Albistaritik” atera dira, hain zuzen, olerki guztiak). Ez da ezer aldatu, ez ortografia gaurkotu, ez aldaketarik egin, bat izan ezik, hauxe: «ts» kontsonantea daramaten hitz batzuek (zorigats, etsekoai, itsasoruntz, santatso, gitsi, e.a.) edo «s» daramaten beste batzuek (alakosea, ause, orresegaitik, e.a.), honako azentua zeramaten jatorrizko testuan: «~». Egia esan, azentu hori ez zen bat ere eroso gure programa informatikoaz erreproduzitzea; eta hala eginik ere, ez zen ordenagailuko pantailan ikusten; inprimatuta bai, ordea, ondo ikusten zen. Edozein modutan, «tx» edo «x» soinua azaldu nahi zuen Arresek halakoetan (zorigaitz, etxekoari, itxasoruntz, santatxo, gutxi, e.a.) edo (halakoxea, hauxe, horrexegaitik, e.a.). Beraz, mekanografiatze-lana errazteko asmoz, aipaturiko azentua («~») kentzeko aldaketa baino ez dugu egin.

ZORIGATS BI
(IPUINA)

Bata da negargarri
Bestea bildurgarri.

—Uriola andiokaz, domeka egunean,
¿Zetan zabilz Iuan Pedro ibai-egalean
Errekara begira orren arduratsu?
¿Arrainen batzuk gura al dituzu artu?
—¿Ene Iose Prantzisko! artu nai dodana,
Da gure Usola, gaur ito egin dana.
—Isilik egon zaite ¿non, da ze modutan?
—Dinoenez an beko arri-pausoetan;
¿Zubitik bide piskat egite ezagaitik
Etsat bada atsoa aldendu mundutik?
Neuk esanarren bada astia beukala,
Neuk esan bederatziak baino etzireala,
Neuk esan oraindino meza nausitara,
Amarrak baino asko len elduko zala;
Ta alan da guzti bere irago mezea
Ezekion, Usola eperik bagea
¿Ezta arrietatik bada asi pasetan
Atertu egin ez-da sei egun oneitan?
Baina, zanean zala, buruan iarria,
Egiteko zalako beti berekoia,
Aor, zelan galdu daben gaur bere burua,
(¿Etsekoai emonik bazkari ederra
Alan bere grazian ilgo al zan bera!)
—Etzaite ainbestean Iuan Pedro estutu,
Zergaitik ito danik ziur eztakizu;
Etzaitez barriz ioan orretara gorutz,
Urak doazalako beti itsasoruntz;
Uste бага artzean ain barri tristea,
Dazaut erraza dala burua galtzea;
Baina kontura zaitez, aurrera begira,
Zelan eztoian urik igoaz mendira,
Eta zuk igoarren bere bururaino,
Edo urak iaioleten direan lekuraino,
Ez uste bilatuko dozula andrarik,
Beruntz datoza urak goruntz eroanik,
Ez uste inoz eztaben gauzarik,
Urak eingo dabela zuretzat bakarrik;
Zoaz gisaiso ori iausi dan tokira,
Eta antse lenengo iardunik begira;
Iruntsi daizunean aurkitzen eztala,
Iatzi zaitez beruntza uraren erara;
Ausaz ibiliko da bazterren batean,
Munara igo nai ta igo ezinean;

Baina goruntz bazoaz bilatzera ala,
 Zoratuta esango dabe zagozala.
 —Eztauke esan baino nazala zoratu,
 Baina egingo dabe orregaz erratu;
 Iose Prantzisko nabil ni bene benetan,
 Ito dala Usola badakit uretan;
 Baina orregaitino ikusi nai neban
 Noruntza azkenean egin eteeban;
 Ezebalako arek sekula bizitzan,
 Besteren kontzejurik ontzat artu izan;
 Alan da guzti bere gaur gure Usola,
 Uragaz nasi ioan bada itsasora,
 Barru au egingo iat puska bat nasaitu,
 Azkenean dalako errazoian sartu;
 Ta zerbait noz edo noz egitea ondo,
 Iose Prantzisko ¿ez da baten bere ez baino?
 Bai, obe da nozbaiten ondo egitea,
 Bai, obe bein edo bein zentzuna artzea,
 Bai, obe azkenean ala umiltzea,
 Bai, bai, tematu baino bakean iltea.
 ¡O! baina ¡o! Iuan Pedro, zuk ondo bazenki,
 Ni bere zelan nazan andreagaz bizi,
 Eztaki inok ondo nor dan gure Inazi,
 Aren senar eztana ez ta bizi gaizki;
 Mukertasunean da bardinik bagea,
 Santatso bat izan da Usola zurea,
 Tsarrerako ezeukan sekula grinarik,
 Eta gure atsoak eztauka besterik;
 Entzun ¿eztozu inoz tigre ta legoiak,
 Prantzesak dituela eziten guztiak?
 Baina gure Inazi ezi daikeanik,
 ¿Inon al da prantzesik edo ingelesik?
 Itz onak balio ez, ain gitsi indarrak,
 Alperrak izan dira eginalak danak;
 Lenen lenengotik da ezigats mukerra,
 Amar ilabetegaz iaioa da bera,
 Ezteutse kausinorik inoz ein legeai,
 Bakar bakarrik bere buruko aizeai.
 Iakin baneutsa nor zan, ¿beragaz neu batu?
 Ez behintzat, bai, lenago mutil zar igartu.
 Beragaz eninduen ain errez lotuko,
 Urkatzea lenago neban esleiduko.
 Etzan ez milagroa, bizar banakea
 Okotz ta ezpane an ari urtetea;
 Eta baldin da baldin iaio balitz mutil,
 Kirriiloak urratzen bearko eban il;
 Bai, ¡zenbat bider prakak ta tsapela iantzi
 Ta gizontzat irago egin da Inazi!
 Alakosea dauka arpegian antza,
 Pipan keia artzeko inon ezta lotsa;

Baina oraindik entzun piskat zer dan bera,
Prueba bat ohea noatzu iartera;
Nai dot nik iragarri ak zer egin daben,
San Anton-egunean Urkiolan aurten.

.....
Ama zazpi kandelaz igo eban ara,
Santuari iartera esanda ioiala;
Eta ¿zer dala uste dozu ein ebana?
Sekula Urkiolan gertatu eztana,
Ipini-bearrean San Anton Abati,
Iarri eutsazan bere arerio bati,
Zein dan oinpean daukan deabru gaizkina,
Zazpi buru daukazan etsura ezaina,
Eneban siniztuko ainbestearino nik,
Euskaldun andra batek egin leikeanik,
Itandutean bada zelan zan ibili,
Urkiolatik iiran zanean etorri,
Bapere lotsa baga eta arro arro,
Erantzun eustanagaz bildurturik nago;
Azaldu eustan berba zorrotzakaz garbi,
Deabrua ebala argitan ipini,
Santuak eztaukala kandela-bearrik,
Arek eztaukala artzen bengantzarik,
Baina deabruagaz bagenbiltzan tsarto,
Zorigatsa etzala etsean paltako,
Ea, neuk eztaukidan lau bei ta sei tsarri,
Galantak igaz zelan il deuskuzan guri;
Zortzi urteterdian ea eztaukidan,
Zelan Urkiolara bera eztaukidan;
Eta inoz eztaukidan entzun plageari,
Kandela bigaz bear iakola ein argi,
Eta iarri beutsazan berak amazazpi,
Izan zala zor zarra pageteagaiti;
Baina orain urtero ipinirik bitso,
Egon gura dabela deabruaz kito,
Eztaukidan gertatu igazko antzean,
Amar buru ilterik geiago etsean,
Aor, irurogetasei urteko atsoak,
Lotsa bagarik bota eustazan bertsoak.

.....
Orain ¿zer dinostazu zer dala Inazi?
—Sorginaren izena aurki dau merezi,
Usola azkenean zuzendu dau urak,
Inazi kastigauko urrean dau suak.

.....
Gureko zorigatsa bada negargarri,
Zuenekoa ezta oso bildurgarri;
Errezki zabal eta nasai naz iarriko,
Entzunik zure kejak gaur Iose Prantzizko.

GUZUR ILUN-ZALEARI

Zenbait eta lurra bigunago
Arra barrurago.
(Esaera zarra.)

Egiagaz burruka legetse guzurra,
Alkarren kontra dabilz gaba ta eguna,
Zelan eztan alkartzen zitalaz biguna,
Argiaz ezta lagun bein bere iluna.
Eta ¿gatsak ezpadau laztan osasuna,
Ona non izan leite tsarraren kutuna?

Orregaitik eguna badoa beruntza,
Gabari nasaituaz doako biotza.
Eguzkiari doa atzetik iarraika,
Zabalduez puskaka kapa ilun baltza,
Ta argia egitean beste aldera pasa
Orduan asten dabe gautarrak olgantza.

Orduan guzurti ta ilunpetakoak
Itsirik bizi diran leku ezkutuak,
Artzen dabez eurentzat erri ta basoak,
Asetuteagaitik egarri gaiztoak,
Lotan dagozalako biotz onekoak,
Egunez bearrean oso nekatuak.

Bestela begiratu ipurtargi ezainak,
Aor, zelan uste daben dirala izarrak;
Aor, kalera urtenik arro sagusarrak,
Ara, ontzak basoan uluka zantarrak,
Deitzen dabela “nausi gu gozak gautarrak,
Zergaitik bereagaz urten daben gabak.”

Ara, otsoa bere gabaz ze zolia,
Artzaina lo dago ta ito dau ardia;
Ara, oilotegian barriz aizeria,
Bizitza бага isten al daben guztia,
Esanaz lotsa бага: “au dok gure aldia,
¿Zetarako ioagu eguzki tsarria?”

“¿Eztok askoz tsarrago guretzat eguna?
“¿Etsoagu egiten gabaz nai doguna,
“Ian bildots guria zein oilanda biguna,
“Gozau bildur bagarik besten ondasuna,
“Betetako gogora etorten iakuna,
“Ause eztok ordua eskatzen genduna?”

Orra, modu berean gizon gau-zalea,
Pristien antzekoa daukana fedea,
Deika: “¿Zetarako dok Iesusen legea?
“¿Zetarako ioagu alako katea,
“Gustora emoteko emen denporea
“Eztok obeagoa gaur liberdadea?

“¿Eztok erosoago gabilzan moduan,
“Bizitea al dana eginaz munduan?
“Non aurkitzen dok ezer il ezkerokoan?
“Non erretako su ta garrik infernuan?
“Eta ¿non gloriarik betiko zeruan
“Ustelduko bagaituk lurraren barruan?”

Orra gautar guztien gaurko berbakuntza,
Orra noraino sartu iaken errakuntza,
Orra zer dinoskoen fedea galduta,
Aurkitzen diralako gabak ilunduta.
¡Ause da zorigats bat negargarri utsa,
Ikusten dabelako bakarrik gorputza!

Nekazariak zelan garean soloan,
Orrelan erein dabe guzurra kanpoan,
Ara bere frutuak kale zein basoan,
Agaitik gauzak dabilz dabilzan taiuan,
Askok dakarrelako aizea buruan,
Asabak kokoloak zirealakoan.

Baina nik dakust garbi begien aurrean
Dontsuago ginala gu lege zarrean,
Baita libreagoak euskaldun lurrean,
Antsinako fediaz bizi ginanean,
Bestela gaur bagagoz libertate obean
¿Zetarako erdaldunak ditugu ganean?

¿Ezkinan zabal bizi geure esparruan
Pristia tsar bat sartu-arte barruan?
¡Ai! au arri bategaz io buru buruan
Eta il-otzik itsi bagendu beingoan,
Ezkinean iausiko lazuan ain estuan,
Barre eragiteko inori auzuan.

Egi egia da, bai, lurra bigunago
Danean, zelan doian arra barrurago.
Tsarragoa sartu zan emen arra baino,
Zegaitik sugea dan askoz okerrago,
Euskaldun Batzar-leku izana lenago,
¿Norgaitik basamortu bestela gaur dago?

Bai, sugeak zeruan asi eban gerra,
Guzurtia zan eta bota eben beera,
Ta gero infernutik urten da lurrera
Dabil bere guzurraz baterik bestera,
Azkenez eldu iakun gure lur maitera,
Libertade-iantziaz zepoan lotzera.

Pristia guzur utsa ;zenbat tsori itsu,
Oi dok zepo orregaz ankatik oratu,
Argia eskini ta ilunagaz lotu,
Eure mantu baltzagaz egitean batu!
Baina Egi bat egin baino len or sartu,
Amorruz bearco dok arbolan urkatu.

Ekiok, gura badok, gerra ain zitalean,
Esetsi Egi orri al doan ainean,
Nekatuko az baina alperrik lanean,
Orain modu batera urrengo bestean,
Zegaitik Eleizeak il beti oinpean,
Eukiko aben lurrak dirauan-artean.

SARA-TAR LARRALDEKO MADALENA

Euskaldun Martiri Neskatileari

Gura neuskizuz zuri gloriak
Kantau, neskatsa samurra,
Frantzian igo eben denporan
Gorriak Gobernura;
Oinperaturik ain gizon gaizto
Infernutarren bildurra,
Oraindik izanarren amabost
urteko gazte biguna,
Pinet ta bere lagunak gaitik
Ezeutsulako ardura.

Alperrik eutsun lotu zinduzan
Piketearen buruak,
Esan guzurras estalduteko
Bera-ko zure kontuak;
Iakin etzedin zetara emon
Zenduzan ara pausuak,
Ta gitsiago an zelan artu
Zenduzan sakramentuak,
Zeintzuek gaitik pagau ezeian
Ondotsu zure lepuak.

Orduan baina fedez sututa
Ain modu miragarrian,
Erantzun zendun: “Nai il naiela
“Ni ilgo nabe Egi-an,
“Iakin begie, gura badabe,
“Agintariak Frantzian,
“Zelan konfesau eta komulgau
“Nazan Bera-ko errian,
“Iauna iraindu baino len zerren
Il gura dodan grazian.”

¿Nor ezta arri egingo oso
Non nai zu ikusitean,
Mendi bat legez gogor ta zutik
Katolikoan fedean?
Ikara baga egia beti
Autortzen tenple batean,
Nai soldaduen, zein jeneralen,
Bardin juezen aurrean,
Iakinagaitik epai gaizto bat
Zeunkala zeure ganean?

Baina Iesus da egia eta
Zu zinean egi-zalea,
Orresegaitik ¡O Madalena!
Kristo zan zure maitea,
Nogaz zenduan zuk bizi gura,
Nogaitik bere iltea,
Nogaz guzurraz etzendulako
Tsarto nai geratutea,
Bere etsaiak emon eutsuen
Kastiguz eriotzea.

¡O neskatila Sara-ko gazte,
Fedez bardinik bagea!
Il bear eta, kantetan dozu
Birjin-Amaren Salbea,
Lirio guri zinan denporan,
Ikusgarrizko lorea,
Gilotineaz gorriak zuri
Ebagiarren samea,
Orain zeruan gozetan dozu
Martiriaren koroea.

KATOLIKOEN ESKOLETAKO
Santu laguntzaileari

¿Zer dogu zer bildurtu, ur au laino baltz batzuk
Gizaldi tsar onetan ilundua gaitik,
Izar batek baditu bere argitasunaz
Desagertu egingo guztiak mundutik?

Izar ori iakun, iragarri nai neuke,
Zergaitik oraindino beraren iaioza,
Dalako ilunari eguzkiak legetse
Larri ta estu iarten deusana biotza.

Eunkada urteak sei irago bitartean,
Ekatsak ¡ai! sarritan eginarren sortu,
Trinakia¹ arkitu eban eguzkiari,
Arpegirik ezteutse oraindino loitu.

Gau eta egun beti biziro agiri dan
Gar ori kantuakaz gizonak alabau,
Lenago eben legez gaur bere bardin bardin,
Bere iaioza pozez gura dabe ondrau.

Alperrik aize tsarrak aterako dituez
Al daben guztietan odei aldrak kontra,
Tomasen bekokitik iaiozako tsimistak
¿Zeinek ipini baina osoro itota?

Tserren baltz gau-zaleak guzurra ta abarra
Erein bei gura badau egia ilteko;
Tomasen errainuzko saetak ikutzean
Bide-bila asten da iges egiteko.

Betoz orresegaitik iakitunak ereintz
Orriakaz burua egitera iantzi,
Zerren iakituriak koroi ori zer deusan
Beti garaipenagaz urten dan Tomasi.

Betoz niretzat bere edurra dirudien
Lora azezena ta larrosa zuriak,
Dontzel ildakoari apaintzeko egoki
Duin iakozan legetse buru ta lokiak.

Betoz zeruetako arpadun egodunak,
Betoz sonu iotzaila guztiak lurrera,
Akinoko eguzki iluntzen eztanari

¹ ¿Erderazko *triaka* eteda?

Korro eginda soinu ederrak jotera.

Bekart aren arteko soinularien batek,
niri bere lira bat aldanik leunena;
Danoen soinuakaz eldu dedin aizetan
Munduko ertzetara Tomasen izena.

¡Zeinek leukaken bear lako doe ederra,
Alabau daigun ondo gizon ain andia!
Iasorik zeruraino zalako aragizko
Aingeru bat munduan tsito zurgarria.

Baina ¿zelan ni lako kantari labur batek
Zelan Tomasi iaso zor iakon gloria?
¿Noren burutik iaio ziran argi erreikai
Ezpanaz inor bere iarteko neurria?

Baina, nik kantauko dot egiaren zaleak
Zelan daben izar au beti bilatuko,
Tomasegan daukela argizko iturri bat,
Zeinek deutsezan laster lainoak kenduko.

TSOMIÑ-NAGI

Ipuia

Anbotoko beleak
Anboton gura.
(Esaera zarra.)

Anbotoko beleak beti bertan bizi
Nai izatean, eztu arrazoi aiñ gutsi;
Baiña ez iritzirik nik orri egoki,
Nere erria emen bertan bera utzi,
Ta Ama alargunari erantzunda tsarki,
Amerikara nuen gaztetan igesi.

Ogeitamar urtean leku urrutian,
Bizitu naiz ni beti erdi-miserian,
Biotz onek zuela arantza erdian,
Onuntza abiatu-arteon ontzian;
Eta bart sartutean nere baserrian,
Esan zidaten: “Ama ila da aspaldian.”

¡Ai! nere Ama ona sentimentuz il zan,
Soil geratu zalako bere alarguntzan,
Noren kartak len artzen nituan sarritan,
Erantzuten nagia baiña nola nintzan,
¡O! zeinbat pena eman nizkion bizitzan,
Beti nitzaiolako seme muker izan!

Baiña etzaizkit aztu aren kontsejuak.
Berak gaiñean daukan lur bedeinkatuak,
Goizetik ikusi nau isurtzen malkuak,
Begiok jarri arte oso gorrituak,
Busti nairik Amaren ezur legortuak,
Nigatik bear baiño len lurperatuak.

Horrela pagatu det zor bat tsit justua,
Zeiñ dan biziak ilai lagundutzekua,
Arkitzean isilik toki aiñ santua,
Izketan neri baiña asi zait barrua,
Eta billos jarririk bertatik burua,
Amagatik euskeraz ein det erregua.

Andik urrena gero sartu naiz Elizan,
Euskaldun fededunak bear duen gisan,
Jaunari orazio lenengo egiñikan,
Gero ikusi det non batiatu nintzan,
Iñon geratu gabe andik irtenikan,

Bisitak egin ditut amar baserritan.

Bai, nere erritarrak dakuskigu emen,
Paseko egaztiak joan da etortzen,
Alasen *Tsomin-Nagi* etorri naiz aurtan,
Uda ta negu asko kanpoan eñarren,
Eta nola onuntza nintzan alderatzen,
Zijoakidan biotz estu au lasaitzen.

Bilbotik nentorrela atzoko trenean,
¡Ai! Udalats tsuntsurra begiaz jotzean,
Eztaikit zer pasatu zatan biotzean,
Gogoraturik nola aitz orren oiñean
Denborarik onena nuela lurrean,
Igaro Ait-Amakin bizi nintzanean.

Bilatutzean gero nere baztertsuak,
Lenago bezelassen tsit gobernatuak,
Aritz, pago, gaztañaz jantzirik basuak,
Arto, baba ta gariz aberats soruak,
Esan nuen: ementsen nere gurasuak
Bizi ziran igaro gabe itsasuak.

Ikustean azkenez euskal-baserriak,
Gure oitura eder garbien tokiak,
Eta len bezelassen gaur nekazariak,
Botatzen dituztela beren izerdiak,
Esan nuen: oraindik euskaldun ernaiak²
Bizi litezke ondo, baiña ez nagiak.

Ni desengaiñatuta gaur nator onera,
Nere baserriaren jabe egitera,
Non bizi nai nuketan il arte aurrera,
Ikusitzean berriz erri au onela,
Pakez danak anaiak balira bezela,
¿Nola igesik egin emendik atzera?

Ezta orrelakorik berriz gertatuko,
Beste bein lotsari au ezteit nik artuko,
Lengo bizimodura enaiz biurtuko,
Zergatikan lanean naizen saiatuko,
Nola ditutan berriz lur onak ta asko,
¿Bizimodua ezteit samur aterako?

Nere eskuan daukat ori egitea,
Badaukat osasuna, gaiñera pakea,
Urtero beti daukat dirua artzea,
Zartzarorako diña laster pilatzea,
Eukirik jatorritik au lako etsaldea,

² Ernaiak = zoliak

¿Nola iges ein nuen bila suertea?

Ni naiz ori eindako lelo aiñ andia,
Tsomin-Nagi geiegi kalera jetsia,
Ni makurtze ezarren lurreruntz gerria,
Artu nuena oso asmo galgarria,
Amari utzirikan nere baserria,
Probatzera joana mundu bat berria.

Baiña gura nuena eitean probatu,
Laster igerri nion nuela erratu,
Ala ere gaisoak, egiñik sendatu,
Oi badu biotzeko poza kanporatu,
¿Eztet orain egingo nik ere agertu
Aiñ urrutitik banaiz ondo erriratu?

¡O! urte miñ garratzak ziñaten bukatu,
Agur, zuekin eztet gura gogoratu,
Agur, bai, Amerika zuk jakin ezazu,
Enazula geiago eingo arrapatu,
Nere errira atzo nintzanean sartu,
Zerutso baten antza niolako artu.

Etzuen asko uste onelako festak,
Emen arkitutzea ez nere biotzak,
Nork pozik dakuskien euskaldunen gauzak,
Makila-dantza eta bertsozko jolasak.
Ta ainbeztek dituztela ganadu galantak,
Ez gitsik premioak artzeko esperantzak.

Pozik ikusten ditut nere erritarrak,
Zuek erriगतिक egindako lanak,
Gloria merezi du gaur gure Euskerak,
Oilo batek bezela tsitotso laztanak,
Dituelako gorde oitura on zarrak,
Bere erraietako umeak diranak.

Zoro bat izan nintzan ni gazte-denboran,
Igaro nuelako guztia kanpoan,
Bizi bear nuena Amaren ondoan,
Lagun egiñarekin bere zartzaroan,
Euskaldun seme onak oi duten moduan,
Iltzean arkiturik oiaren alboan.

Diru-goseak nindun emendik eraman,
Berau gatik itsasoz ¡o! zeinbat dijoan!
Emen nai duenari lurrean egin lan,
Arako kontsejurik eztiot nai eman,
Zergatik eztakiten zeinbat gisajo an,
Tsarki bizi ta nola tsarrago iltzen dan.

Esango det oraindik egi bat tristea,
Izozturik topatu nuela an Fedea,
Beroagoa ere ez karidadea,
An triste bizi oi da suerte gabea,
Ugari badute ere gaur libertadea,
Obe lukete utsik Kristoren legea.

Beste gauza bat ere orain *Tsomin Nagik*
Esango det iñori egin gabe gaitzik,
Ameriketan dabiltz tsakurrak oiñ utsik,
Gosea padezitzen eztutela gutsik.
Onela egin badet gezurrakin itzik,
Esan beza nerekin etorri dan *Patsik*.

Urrutiko intsaurreak asko ta andiak,
Esaeran dakite gaur iia guztiak,
Bilatuko balira naiz izan erdiak,
Izango luke zerbait itsura egiak,
Baiña topatutzean urri ta tsikiak,
¿Eztitu zabalduko gizonak begiak?

Eztiot kendu gura iñori kreiturik,
Geiegi ez altsatu baiña Amerikarik,
Aberastzeko ezta arako bearrik,
Emen ere bilatu ditudalako nik,
Len pobre ziradenak aberats egiñik,
Arriskuan buruak ipiñi gaberik.

Altsatuko det goren euskaldun Erria,
Ni jaio ta azteko izana kabia,
Mundu guztian onek geien du grazia,
Intza oi dan bezela zerutik jetsia,
Au ezta iritzia, ezpada egia,
Ta egiak non nai dauka arpegi garbia.

Antzinako esanak geienetan garbi,
Irtetzen dira, zeren ondo ziran jarri
Eztet nik izan gura utsik bertsolari,
Baizikan itsuari egiñ ere argi,
Eztedin ni bezela lazoan erori,
Gorputza ta anima ipiñirik larri.

Zor diot duda gabe Jaunari eskerra,
Zergatik bere eskuz ni nauen onera
Erakarri aitonen euskaldun lurrera,
nere ezur gogorrok deskantsatutzeroa,
Aien ondoan sartu nazaten lurpera,
Pakean lo dezadan berakin batera.

Orregatikan nai det nik erri onetan
Nere bizi laburra azken arte eman,
Bere arkaitz ta mendi eta ibarretan,
Bizirik gurasoen oitura zarretan,
Iraunik beren fede ta sinizkeretan,
Bildu nadin berakin gero zeruetan.

.....
¡Ai! baneuka oraindik eztarran boza,
Entzun dezaten denak nire itzen otsa,
Diot, barru-barrutik enaizela lotsa,
Agertzeko argiro gaur nere biotza,
Tsomin Nagik gaur artu emen dedan poza,
Al balitz eun urtean nai nukela goza.

Diot berriro poz au andia dedala,
Euskera degulako oraindikan Ama,
Bere seme on beti bagera gu ala,
Elkarturik anaiok gaur geran bezala,
Sendaturik aspaldi daukan zauri zarra,
Fueroakin oraindik biziko gerala.

Nik beintzat Euskerakin nai det bizitzea,
Baita berau sendatzen nekea artzea,
Euskeraz euskaldunai beti egitea,
naiz izan aberatsa oro bat pobrea,
Bizi dakigun emen euskaldun fedea,
Erderak dakarrena baiño tsit obea.

Nik eztet oraindikan oberik bilatu,
Lur asko egiñ arren munduan aratu,
Gure euskal fede au dezagun maitatu,
bestekin egin gabe sekulan trukatu,
Euskaldun sabelean nola giñan sortu,
Euskaldun besoetan gaitezen amaitu.

.....
¡O! belea zuk ere il arte Anboton,
Jarrai, eztezulako lur oberik iñon,
Amerika-zaleak an bitez an konpon,
Perun, Buenos Aires-en, Tsilen zein Mejikon,
Guri oi digulako lur onek utsik on,
Zuk Anboto bezela, nik nai det Mondragon.

KURUTZEAREN OINEAN DAGOEN MARIARI

Maria da bai, Jaungoikoaren Ama garbia,
Maria bere tortola samur, uso zuria,
Maria iturri amodiozko bizi bizia,
Maria lora usaintsu eta dana ezta,
Maria ekats ondoko arku bakegarria,
Eta Maria gaur da ume bat errukarria.

Maria da bai agintarien gorenengua,
Mariak dauka Iratargian oinen sorua,
Mariak dauka zero altuan jazarlekua,
Mariak utsik Eguzkizkoa bere mantua,
Maria da bai, Jaungoikoaren urrengokua,
Eta Maria ikusiten dot gaur larritua.

Maria da bai, pasino-lora lora arteetan,
Judea aldean ikusgarrien goiz guztietan,
Maria da bai, perla ain zuri zurienetan,
Maria da bai bedeinkatua emakumetan,
Maria ederren Jaungoikoaren begi bietan,
Eta Maria gaur larriena andra danetan.

Mariak beti negartiari erruki deutsa,
Mariak dauka bidaztientzat beti laguntza,
Maria da bai, gure portuko gia on utsa,
Mariak dau bai, beti gordetan ume bat zurtza,
Baldin badago Ama, uluka beraganuntza,
Eta Maria orra or bera gaur zizpuruka.

¿Zelan Maria zakust or baltzez ain estalia?
¿Zelan Siongo ateetan zagoz ain negartia?
¿Zelan gelatik bakar bakarrik ona etorria,
Ilun jarriko dalako laster gaur Eguzkia,
Ikuste ezarren bilos bilosik bere Nausia?

¿Zertako baina kalbariora gaur igo zara?
¿Zertako dozu aiñ bide latza irago Ama?
¿Zertako dozu ikusi gura Bildots otsaua,
Gure okerrak zuzentzarren gaur ilgo dana,
Abe orretan lotsagorrian errurik baga?

¿Nok sartu deutsuz hainbeste ezpata orren zorrotzak?
Nok erakutsi alako miñ ta oiñaz garratzak?
Jerusalenen sopinduteko negarrez autsak,
Aisetan egan egiñik zure zotin mingotzak,
Sentimentutan ausiteraino askoi biotzak?

Golgotaraino erdu gaur Eden, odol zalea,
Ikusitera emen Ama bat penaz betea,
Gura deusuna orregaitino parkatutea,
Nai bazenduke zeure okerren damua artzea,
Kurutz-oinean arinduagaz bere penea.

Erdu bai erdu Salen nasai ta loia onera,
Kurutz-oinean Dontzeila oni begiratzera,
Eta kurutzan ikusiagaz *Inri* berbera,
¿Etzara jausten berta-bertatik auspaz lurrera,
Ama hainbeste samindu oni parka eskatzera?

Edola bere erdu, arren, zu Malen leiala,
Baita Siongo dontzeilak bere erdue bada,
Erdu zu bere Jesusen aide Joane laztana,
Ebanjelioz jarri dagizun zearo dana,
Zelan dagozan ordu onetan Jesus ta Ama.

Begira Joane, baldin badozu biotz sendorik,
Ete dagozan inon Seme ta Amau lakorik,
Kurutzan bata narru gorrian aiñ lotsaturik,
Esku ta oinak iru untzegaz gogor josirik,
Gaizki esalez eta borroruz inguraturik,
Eta erdian Jesus ta Ama penaz beterik,
Betiko Aitak baleukaz legez deslai itsirik.

Kurutz-oinean aurkituten da Ama gaisua,
Kurutzeruntza jasorik dauka bere burua,
Kurutzan dauka bere begien egon lekua,
Kurutzan dauka bere biotz ta bere gogua,
Nai leuskiona emon al balei azken mosua,
Eta al balitz beragaz autse il gaur batua,
Dalako bera bere Jaungoiko egiazkua,
Dalako Aita, eta dalako bere Esposua,
Dalako Jesus erraietako bere Frutua.

.....
Iia Jesusen begiak dira Joane iluntzen,
An arnasea zelan doakon iia gelditzen,
Ara burua zelan lurreruntz jakon jausiten,
Orain arimak beste mundura iges egiten,
Bizitza gina bizitza бага dabela itsiten.

.....
Bizitza бага or Lauburuan bizitzagina,
Bizirik orra bere oinean Ama Birjina,
Bizirik baina geldituarren gure Erregina,
Bizirik dago damuzko uretan ito ezinda,
Bizirik; baina ain estu daukan bere zotina,
Iragarteko enazalako ni barriz dina,
Gelditu nadin mutu bat legez isil isila,
Esan dagien sentiezkorrak berorren mina,

Eta Golgotan zer pekatua gaur dan egina.

.....
Ona dardaraz lurra guztia ikaratua,
Jesusen etsai izan dan asko an bildurtua,
Egun erdian zerua gaur da izan gautua,
Orain Tenpluan kortina berez au urratua,
Ta orra arrien, orra obien, sentimentua,
A da apurtua, au azkatua, ila biztua,
Dana damua, dana estua, dana izua,
Izate dana ainbestearaino da larritua,
Zeinek dirauskun il jakola gaur Jaube altsua.

.....
Il da danoen Egilea ta Jaube bakarra,
Il da Maria, il da zeurorren bizi laztana,
Il da bai, il da, sekula bere ilgo eztana,
Il da a baina, etzakiguz il, arren, zu Ama,
¿Iltzen bazara zeure Semea il dan erara
Iltzaka zelan ume zurtzuok biziko gara?

Negar egizu kurutz-oinean nasaitu arte,
Negar egizu baina il baga ¡o Ama maite!
Negar egizu negar artean baina poz zaite,
Zerren Arbola orren frutuak jaiota ainbeste,
Zeru zabalak egingo dira arimaz bete.

Negar egizu, negar bai, Ama, kurutz-oinean
Negar egizu alargun legez bakartadean,
Baina poz zaitez Ama Semeok oinaz artean,
Dozuelako gizona jarri libertadean,
Demonioak eukana iia bere mendean.

Negar egizu daukazulako zuk erraietan,
Atsekaberik eskergeena ordu onetan,
Baina, poz zaitez Ama larria oinaz danetan,
Bigarren Jesus zarealako modu orretan,
Gure arimen salbaziñoko lan-bideetan.

Negar egizu lirio zuri Nazaretarra,
Belendik eta Kalbarioko gain onetara,
Oinatz danetan zendualako aurkitu narra,
Baina poz zaitez zaitugulako zu irakasla,
Zein bide dogun erakusteko zeruetara.

Negar egizu arren dakidan Jauna samurtu,
Negar egizu nik dodalako ilik largatu,
Negar zu bere zaitu dalako asko alatu,
Negar zergaitik sarritan egin dodan pekatu,
Baina orain ni zelan benetan nazan garbatu,
Negar gura dot nik bere egin ta Ama parkatu,
Negar egunez, negarrez gabez nai dot jarraitu,

Negar artean negarrez nadin ilik geratu,
Negarrok Ama egitearren zuri leortu.

AMODIO EDERRAREN AMA DANARI

Maiatzeko Lorak

KANTARTEA

Zeiñ miragarri dan
Goazen ikustera,
Edengo lirio
Maria ederra,
Eta lora zuriz
Egiñik arua,
Apaindu daiogun
Berari burua.

KANTALDIAK

Loraz lora zein goiz,
Uso tsit zuriak,
Topetan dabiltzan
Usain pozgarriak;
Agaitik zerutik
Zatorkuz zu egan,
Gu poztera Ama
Zure amorean.

Idargi-gañeko
¡O Neskatilea!
Larrosen larrosa,
Loren tsit lorea,
Dontzeilen dontzeila,
Andreen aiñ andria,
Ametan ama, ¿nor
Da zu duiñ andia?

¡O izan danetan
Goren gorengoa!
Nok leuken zuretzat
Bear bestekoa,
Amore bat sutsu
Gozo ta garbia,
Eskiñi daizugun
Maiatz loratia.

Lirioz iantzirik
Bekokia eder,
mendi puntan ilau
Goiz dogu ikusten,
Dakarrelako ain

Ederra iantzia,
Oriturik doa
Iges idargia.

Goizez aiñ gozo da,
Egunez argia,
Gabez izartsu ta
Iparrez ezta,
Zuretzat dalako
Berariz egiña,
Artu egiguzu,
Ama Erregiña.

Opa nai deutsugu
Azkenez biotza,
Zu zarealako
Beti bere poza;
Alabau zagizan
Il guztian gogoz,
Soiñu leun eztiz ta
Berba neurtu gozoz.

MAIATZEKO ILEAN IAUNGOIKOAREN
LAZTANARI

Iaungoikozko kantazale dan kantari onegana,
Izar erri-goitik erdu, tsimista bat sutsua;
Isuri daidan aotik, eten bagarik bizi-
Ur-korronta bat ugari, gori ta galdatua.

Espiritu zerutarra, zatort bereala egan,
Nire biotz erdi ilau daukazu itsaroten,
Bidazti onek egarriz, eskatuten zaitu bada,
Kantatzaila onek gogo gogotik deitsu deitzen.

Kantau nai eztodalako mundutarren gloriarik,
Kantau bai, baiña ez kantau lureko ondasuna;
Kantau baiña ez betarren azaiña ta kondairarik,
Zerren onelako kantak uts daben goitasuna.

Eztot gura nire kantok iardun daitezcan lorakaz,
Lorak kantau daien nai dot, kantau gura dodana,
Danak kantau daien nai dot kantarik eregi-
Ondraurik Dontzeila garbi kantagarrien dana.

Kardintsak³ erramen puntan tsistueta zoliakaz,
Jaunaren gloriak pozez kantauagaz batera,
Kantau daien kantau nai dot, tsorrotsiozko kantakaz,
Kantageien kantagei dan Mariaren izena.

Mitsileta⁴ jirazale, gorrizka urrez iantziak,
Terziopel ta granazko egoak zabaldurik,
Agurtu ta bedeinkatu bei Dontzeila ain dontsua,
Dontzeil-onek daukalako sortitza⁵ zoraturik.

Dontzeila oni emon beio zuritasuna azuzenak,
Jireuzkiak⁶ opa eta eskiñi modestia,
Tulipan zerden zuzenak eguzkiaren islea⁷,
Bioleta umiltsoak gozotasun ez-
tia.

Lirioak emon beio Dontzeila oni lurruna,
Errurik-eza begio aleliak saritu,
Nardoak, krabeliñeak, platano ta larroseak
Altarea apaindurik Dontzeila ause goratu.

³ Kardintsa = jilguero

⁴ Mitsileta = mariposa

⁵ Sortitza = la Naturaleza

⁶ Jireuzkiak = tornasol

⁷ Islea = reflejo

Iparrak Dontzeila oni loren usaiñak bekartzaz,
Palma ta iiak eskiñi zizpuru arintsoak,
Aizeak putz ots biguna, mendiak edur moltsoak:
Emon beioz koral, nakar ta perlak itsasoak.

Izar-erriak begio oiñ azpitik jira egin,
Edertu beioz galanto matrailak goiz gorriak,
Odeiak egiñ aulkia, Idargiak oinak jantzi,
Iaunak Koroia ornidu, pabeiloia Eguzkiak.

Kantau bei danak Maria, bedeinka bei Iaunaren
Eskuetatik atera zirean egin guztiak;
Zeruetan aingeruak, eta lurean justuak,
Bero, otz, intz, ur, Eguzki eta izar argiak.

Bedeinka beie irestu⁸, oiñaztarri ta laiñoak,
Lanbro, iusturi⁹, indriska, truisu, eta ekatsak,
Izotz, zurda, lei ta tsingor, euri bisuts-zaparradak,
Argi, ilun, arrats, egun, osgarbi eta gabak.

Bedeinka euren Erregiña, baso, solo, menditsoak
Landara ta bedartsoak, erneagaz batera,
Itsaso, ibai, errekek, iturri, patin, aintzirak¹⁰
Landa, zelai, ibar, larrak, euren Ama ederra.

Abere otzanak eta donga, sor, bizi, uzuak,
Egazti, arraiñ, piztiak, bedeinkatu Maria;
Goi goietan Serafiñen soiñu kantak entzun bitez,
Zeruetan izan bedi, Santuen gaiñ jarria.

Bedeinkatu bei seaskan, ume zurtzak kurriskaka,
Itsasgizonak bagetan, alarguntzan zotiñak;
Aterik ate dabilen eskekoak ogi bila,
Nekazariak soloan, mendietan artzainak.

Geiso danak deitu beio erien osatzailea,
katigu aurkitzen danak itsien erospena,
Atsekabez dagoanak, bere izar pozgarria,
Ots egin pekatariak, non daukan parkamena.

Begiraunez dalako, usotsoaren antzera,
Aingeruak baiño dauka ohea arpegia,
Eguna iaiotzan baiño askozaz da ederrago,
Bera duiñ pozgarri ezta goizetan Eguzkia.

Tsito eder dan Dontzeilau, iaso daigun gora gora,
benetan guztiz Santea Berboaren Ama da,

⁸ Irestua = oiñaztua

⁹ Iusturia = trumoa

¹⁰ Aintzira = lago

Mututu mundu guztiak, il onetan egin danak,
Alegiña ondretako Iankoaren Laztana.

UDA BARRIA

Negu baltzean atso bat legez zan izatea
Orain dakusku burua zabal dakarrela,
Apainduagaz bere uileak neskatsen gisan,
Itsaropenez gorputza iazten gaur dabela.

Ikustekorik ikusgarrien oraiñ au dogu,
Begira daigun kanpoetara gaur bestela,
Zelan dagozan iaierik mila lora-mueta,
Euren lurrunaz atseginduten gaituela.

Aisea dator bigunagoa len baiño emen,
Gozogarri da bat iarritea bera artzen,
Zeiñen bagetan tsori politak egan dabiltzaz,
Uda barria etorri dala iragarten.

Ontziak doaz zabalduagaz bela zuriak,
Ekats gaiztoak ezauz len legez bildurtuten,
Amerikara ioan zirean egazti asko,
Asirik dagoz barriro onuntz biurtuten.

Artzainak dabez tsilibituak ur korrontaren
Alboko landan kerizpetsotan soiñututen,
Auma samurrak, bildots guriak, dantzan egiñaz
Emoten dabe zer eldu iakun adituten.

Tsal ta mosalak akitilari besteen gisan
Gogo argia deuskue bere erakusten,
Leiak kiskaldu zituzan lurrak nekazariak,
Laieaz ditu itzuliagaz astinduten.

Egun sentiak ezotuten dauz inontzen perlaz,
Lurrak agertu zituzan lora ta bitsiak,
Dirudienak egon dirala len ezkutuan,
Ikusi daizan uda barrian Eguzkiak.

“Ongi etorri” esaten deutse, Errege bati
Oi iakon legez, landara samur ta guriak,
Eta besteak zeinbat gorago igoten daben,
Obetoago ezarten deutsez bi begiak.

Agurak bere bota dituez kapa lodiak,
Ikusten dira gaur tsairoago¹¹ kaleetan,
Eta atsoak bizkor bizkorrik lengo aldean,
Eztaukelako hainbeste sorki gorputzetan.

¹¹ Tsairoago = ajilago edo bizkorrago

Gazteak barriz poztuten dira ezin geiago,
Euren gogoa dakarrelako piestetan,
Eizari danak oia itsirik goisetik doaz,
Ibiltearren erbi-atzean mendietan.

Ugarasoak asirik dagoz *kar kar* egiten,
Tsindurri piñak abiau dira bearrean,
Burrundaraka erleak dabiltz lorarik lora,
Eztigintzako egoki diran gei-atzean.

Kukuak *ku, ku*, zozoak *zor, zor*, negutak¹² *tsuiñ, tsuiñ*,
Birigarroak barriz tantaien gailurrean,
Kantetan dabe danak guztiak etorri dala,
Uda barria negu baltzaren ondorean.

¹² Negutea = erderazko *chonta*.

